

Oiartzo Ikastola:

Batxilergorako gida



Aurkibidea:

Edukia

Batxilergoa	3
Modalitateak eta familia nagusiak.....	3
Batxilergo gai-motak	4
Modalitateak	5
ZIENTZIAK.....	5
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK.....	7
Aukerako gaiak.....	9
Ohiko galdera-sorta (FAQ)	10

Batxilergoa

Batxilergoa goi-mailako ikasketetara sarbide zuzena ematen duen bi urteko etapa da. Goi-mailako ikasketak burutzeko biderik laburrena da.

Batxilergoa oso etapa berezia da: ez da derrigorrezko etapa bat (DBH bezala), baina ez da lanbide batera bideratzen gaituen etapa bat ere (lanbide heziketa edo unibertsitatea bezala). Bien tarteko etapa bat da, DBH eta goi-mailako ikasketen artean zubi lana egiten duena. Eta horixe da batxilergoaren helburu nagusia, DBHko ikasleak goi-mailako ikasketetara bideratzea eta ikasketa hauek burutzeko prestatzea.

Goi-mailako ikasketa horiek familia desberdinetan sailkatzen dira: zientzietako ikasketak daude, ikasketa teknikoak, gizarte zientzietakoak eta abar. Honen ondorioz, batxilergoa ere adar desberdinetan banatzen da, ikasleak interesa duten goi-mailako adar horietara zuzenean bideratzeko.

Orain arteko ikasketa-mailetan ez bezala, batxilergoan modalitateak daude. Batxilergoko modalitateak edo batxilergo-mota desberdinak ez dira aipamen kurrikular bat bakarrik, titulaziori eragiten dioten ibilbideak baizik. Batxilergoan egiten dugun ibilbideak ikasketa-familia batera bideratuko gaitu. Beraz, esan dezakegu lehendabizi egin beharko dugun aukera modalitatearen aukera dela.

Horrez gain, interesgarria da batxilergoaren egitura ezagutzea: zein diren gaiak, gai motak, baldintzak e.a. Hurrengo lerroetan batxilergoaren egitura azaltzen saiatuko gara, etorkizunerako hartzen dugun erabakia ahalik eta informazio gehienarekin hartzeko.

Modalitateak eta familia nagusiak

Lau batxilergo mota daude, orokorrean hiru familiatan sailkatzen ditugunak. Honakoak dira lau batxilergo-modalitateak: zientzietako batxilergoa, giza zientzietako batxilergoa, gizarte zientzietako batxilergoa eta batxilergo artistikoa.

Zientzietako batxilergoan zientzietako gaiak dira nagusi, eta zientzietako ikasketak egiteko asmoa dutenentzako da egokia. Goi-mailako lanbide heziketan eta unibertsitatean zientzietako ikasketa-sorta ederra dago, eta ikasketa horietan batxilergo-mota hau egin dutenek lehentasuna dute sartzeko. Beraz, praktikan ikasketa batzuetara sartzeko ezinbestekoa da zientzietako batxilergoa.

Zientzietako modalitatean, enborreko gaia matematika da. Gainontzeko gaiak ikasleen aukeraren baitakoak dira. Modalitatearen barruan bizpahiru ibilbide bereizi ditzakegu: ibilbide teknikoa (ingeniaritza, arkitektura eta antzeko ikasketetara zuzendua), ibilbide sanitarioa (biologia, medikuntza eta adar horretako ikasketetara bideratua) eta zientzien

bidea (zientzia jakin bat ikastera bideratutako ibilbidea: fisika, matematika edo geologia, adibidez).

Giza zientziak eta gizarte zientziak dira hurrengo bi modalitateak. Askotan uste dugu batxilergoko modalitateak hiru direla, giza eta gizarte zientzien batxilergoak zaku berean sartzen ditugulako. Badaude arrazoiak horrela pentsatzeko, gai asko elkarbanatzen dituzte-eta. Baina izatez bi batxilergo-mota desberdin dira. Egokiak dira gizarte gaietarako (ekonomia, zuzenbidea, magisteritza) edo hizkuntza eta humanitateetarako (antropologia, filologiak, historia). Giza zientzietako batxilergoaren enborreko gaia latina da eta gizarte zientzietako batxilergoarena berriz gizarte zientzietako matematika. Hori da bien arteko desberdintasun nagusia, gainontzeko modalitateko gaiak berberak direlako.

Batxilergo artistikoa ikasketa artistikoetara bideratutako ikasleentzako da egokia. Modalitateko gaiak adar artistikokoak dira. Oso batxilergo bide konkretua da eta ondorioz ez ditugu eskaera asko jasotzen. Hiri nagusienetan bakarrik eskaintzen da. Dena dela, Oiartzoko batxilergoak ere ematen du goi-mailako ikasketa artistikoetara sarrera zuzena, batxilergo artistikoa ez baita lehenesten ikasketa hauetan. Hau hobeto azaltzen dugu galderen atalean (ikus 12. orria). Modu xumean, hautazkoen bitartez, zenbait adar artistiko lantzen saiatzen gara Oiartzon.

Batxilergoko gai-motak

Batxilergoaren egitura ulertzeko ezinbestekoa da gai-motak ulertzea. Lehenengo mailako 10 gaiak eta bigarren mailako 9 gaiak ondorengo hiru familia hauetan sailkatu ditzakegu. Talde bakoitzak bere ezaugarriak eta aukerak ditu. Talde hauetan banatzen dira batxilergoko gaiak:

GAI OROKORRAK: Ikasle guztiek egin beharreko gaiak dira. Lehenengo mailan guztira 5 gai dira. Hemen sartzen dira modalitate edo batxilergo-mota axola gabe ikasi behar direnak: euskara, gaztelania, ingelesa, filosofia eta gorputz hezkuntza. Batxilergo-mota guztietan derrigorrez egin behar dira gai hauek, denentzat berberak dira. Oiartzon gai hauek gela naturaletan lantzen dira, ohiko geletan.

MODALITATEKO GAIK: Batxilergo modalitate bakoitzak propio bereak dituen gaiak dira. Batxilergo osoan modalitateko 6 gai osatu behar dira, 3 ikasturte bakoitzean. Gai hauek ez dira ohiko geletan burutzen. Taldeak banatu egiten dira eta modalitateko taldeetan lantzen ditugu. Urte bakoitzean egin behar diren 3 modalitateko gaietatik bat "enborrekoa" da, modalitateak propio berea duena. Geratzen diren beste bi gaiak ikasleak aukeratu ditzake bere modalitatearen barruan nahiago duen moduan. Enborrekoak modalitateari izaera ematen dioten gaiak dira. Adibidez, zientzietako

modalitateko enborreko gaia matematika da, eta ikasturte bakoitzean egin beharreko modalitateko gai bat matematika izango da, nahitaez. Beste biak bere interesen arabera aukeratu ahalko ditu ikasleak.

AUKERAKO GAIK: Hautazko gaiak dira hauek. Familia edo interes desberdinak asetzeko gaiak dira eta ez daude modalitateei lotuta. Badaude zientzietako gaiak, baita teknikoak, artistikoak edo enpresa mundukoak ere. Horien aukeraketa askea da: ikasleek beren interesaren arabera aukeratu dezakete. Beraz, aukerako gaietan modalitateek ezartzen duten mugarik ez dago. Giza zientzietako ikasle batek anatomia edo kultura zientifikoa ikasteko interesa badu, aukeratu ditzake. Norberak bere batxilergoa osatzeko interesgarriak dira gai hauek, jakintza arlo desberdinak lantzeko. Ikasturte bakoitzean 2 egin behar dira.

Modalitateak

Modalitate desberdinen xehetasunak aurkituko dituzue atal honetan. Oiartzon hiru modalitate eskaintzen ditugu: zientzietako modalitatea, giza zientzietako modalitatea eta gizarte zientzietako modalitatea. Praktikan, Oiartzoko antolaketaren barruan, bi talde nagusitan banatuko ditugu: zientziak (zientzietako modalitatea) eta "letrak" (giza eta gizarte zientziakoak).

ZIENTZIAK:

Zientzietako batxilergoak honako egitura du:

Modalitateko enborrekoak (ikasturte bakoitzean bat):

Matematika I

Matematika II

Modalitateko gaiak (ikasturte bakoitzean 2):

1. mailan:

Fisika-kimika

Biologia eta geologia

Marrazketa teknikoa I

Oiartzon, lehenengo mailan, Fisika-kimika derrigorrezkoa da modalitatearen barruan. Zientzietako denek egin behar dute. Honen arrazoia sinplea da: hurrengo ikasturtean ikasle denek fisika edo kimika ikasten bukatuko dute. Norbaitek pentsatu dezake beste aukera batzuk ere badaudela, baina praktikan ez da horrela. Biologia-geologia eta Marrazketa teknikoaren artean aukeratu beharko dute 3. modalitatekoa.

2. mailan:

Kimika

Fisika

Biologia

Marrazketa teknikoa II

Teorian aukeraketa askea da 4 gai hauen artean eta ikasleek gehien interesatzen zaizkien 2 gaiak aukeratu behar dituzte. Aitzitik, unibertsitateak ezartzen dituen haztatze-parametroen ondorioz, orokorrean kimika edo fisika aukeratu behar dute alde batetik; eta bestetik biologia edo marrazketa teknikoa. Kontuan izan behar da bigarren mailan biologia egin ahal izateko lehenengoan biologia-geologia egin behar dela, eta marrazketa teknikoan berdin: lehen zatia eginda eduki behar da bigarrena egiteko. Kontu hau galderen atalean azaltzen dugu hobeto.

Hasiera batean eskaintzak oso irekia badirudi ere, praktikan ez da hain zabala. Egoera bera izaten da batxilergo zientifikoa eskaintzen den ikastetxe guztietan. Errealitateak, unibertsitateko haztatze-parametroek eta irakasgaiak egiteko jarritako baldintzek, praktikan 3 ibilbide nagusi sortu dituzte. Orokorrean, zientzietako ikasleen %100ak 3 ibilbide hauetariko bat egiten du. Hemen dituzue azalduta.

Zientzietako ibilbide nagusiak:

Ibilbide ZIENTIFIKOA			
1. mailako gaiak:	Enborrekoa	Matematika I	
	Modalitatekoak	Fisika-kimika	Marrazketa teknikoa I edo biologia-geologia
2. mailako gaiak	Enborrekoa	Matematika II	
	Modalitatekoak	Fisika	Kimika
Aukera hau egokia da informatika-ingeniaritza, kimika, fisika edo matematika bezalako graduatarako.			

Ibilbide TEKNIKOA			
1. mailako gaiak:	Enborrekoa	Matematika I	
	Modalitatekoak	Fisika-kimika	Marrazketa teknikoa I
2. mailako gaiak	Enborrekoa	Matematika II	
	Modalitatekoak	Fisika	Marrazketa teknikoa II
Aukera hau egokia da ingeniartzetarako, arkitektura edo goi-mailako ziklo teknikoetarako (diseinuko zikloak edo mekanikakoak, esaterako).			

Ibilbide SANITARIOA			
1. mailako gaiak:	Enborrekoa	Matematika I	
	Modalitatekoak	Fisika-kimika	Biologia eta geologia
2. mailako gaiak	Enborrekoa	Matematika II	
	Modalitatekoak	Kimika	Biologia
Aukera hau egokia da biologia, bioteknologia, erizaintza, medikuntza, farmazia eta familia honetako goi mailako zikloetarako.			

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK:

Lehenago bi modalitate desberdin direla esan badugu ere, orokorrean modalitate berdina izango balira bezala tratatzen ditugu, ia gai guztiak berberak dira-eta (enborrekoak izan ezik). Letretako batxilergoa ere esaten diogu modu kolokialean. Honela antolatzen dira batxilergo-modalitate hauek:

Modalitateko enborrekoak (ikasturte bakoitzean bat):

GIZARTE zientzietako batx.	GIZA zientzietako batx.
Gizarte zientzietako matematika I	Latina I
Gizarte zientzietako matematika II	Latina II

Modalitateko gaiak (ikasturte bakoitzean 2):

1. mailan:

Mundu garaikidearen historia

Ekonomia

Literatura unibertsala

Oiartzon, lehenengo mailan historia derrigorrezkoa da. Oinarrizko gaia iruditzen zaigu giza-gizarte zientzietan eta gainera, paregabeko oinarria da bigarren mailan Espainiako historia egiteko.

Beste bi gaien arteko aukera librea da. Literatura eta ekonomiaren artean aukeratu behar da, interesen arabera. Ez du axola giza edo gizarte zientzietako batxilergoa egiten ari den ikaslea, bien artean modu askean aukeratzen da.

2. mailan:

Enpresaren ekonomia

Geografia

Artearen historia

Filosofiaren historia

Gai hauen arteko aukera librea da, eta zientzietan ez bezala, ez daude lehenengo mailako gaiak lotuta. Hau da, ekonomia egin ez duen batek enpresaren ekonomia aukeratu dezake hala nahi badu. Hemen ere, batxilergo-modalitateen artean ez dago desberdintasunik eta matematika edo latina aukeratzeak ez du mugatzen 4 gai hauen artean aukeratzeko. Latinekoek nahi dituzten 2 gai aukeratu behar dituzte, baita gizarte zientzietako matematikakoek ere.

Giza eta gizarte zientzietako ibilbide nagusiak:

Modalitate hauetan, zientzietan ez bezala, ibilbideak ezin ditugu argi identifikatu. Zientzietan ikasleen %100ak lehen aipatutako 3 ibilbideen artean aukeratzen bukatzen badu ere, giza eta gizarte zientzietan aukera anitzagoa da eta denetik egon ohi da. Ibilbide desberdinak proposatu ahalko genituzke gure ikasleek nagusiki aukeratzen dituztenak direlako, baina agian norbait lagundu baino nahasi egingo dugu horrela. Beraz, ibilbide desberdinen artean hauek dira gure gomendioak (ez dira derrigorrezko jarraibideak):

- Gizarte zientzietako batxilergoa: egokiagoa da magisteritza edo enpresa munduko karrerarako. Bi arrazoiengatik: haztatze-parametroetan garrantzia ematen diote GZ matematikari (hau da, extra puntuatzen dute ikasketa hauetara sartzeko). Bestalde, enpresa munduko ikasketetan (eta beste ikasketa batzuetan ere bai) matematikako oinarri ona ezinbestekoa da. Dena dela, ez dira derrigorrezko

jarraibideak eta latina egin duen batek ere enpresa zientziak edo magisteritza ikasi dezake, kontuan izanda aipatutako muga txiki horiek izango dituela.

- Latina: Zertarako balio du latinak? Ikasle batek bere interesen arabera erosotasunean ikasteko. Latina egokia da filologiak (euskara, hispanikoa, ingelesa), itzulpengintza, antropologia edo historia bezalako ikasketetarako. Ez da mugatzailea, ekonomia ikasi dezake latina egin duen batek, baina ulertu behar da matematikatan oinarri falta bat izango duela aukera hau eginez gero. Bestalde, garrantzitsua da baita ere erosotasun eta arrakasta bidea aukeratzea. Batzuetan gustuko bidea eroso ikasten hasten garenean topatzen dugu. Ikasle batzuentzat latina izan ohi da eroso dauden toki hori. Askotan egokiagoa da latinarekin baina arrakastarekin egitea batxilergoa, matematikarekin arrastaka egitea baino. Hau ere baloratu beharra dago.

Aukerako gaiak

Oiartzon aukerako gaiei garrantzia handia ematen diegu. Ikasle batek modalitatea aukeratzeaz gain, bere batxilergo propioa osatzeko aukera du dituen interesen arabera. Gure filosofia hautazko gaitan aukera askea uztea da, ikasleek beren interesei bakarrik erreparatzeko aukeraketa egiterakoan. Beraz, aukerako gaien hautaketa-prozesuan modalitateak alde batera utzi eta interesetan zentratzea gomendatzen dugu.

Irakasleentzat ere gai interesgarriak dira. Unibertsitateko Sarrera Frogan (selektibitatea) egoten ez direnez, ez gaude ebaluatzeko modu edo eredu batera lotuta. Horren ondorioz, ebaluazioan ezezik metodologian ere esperimenezko aukera handiagoa eskaintzen digute. Begirada desberdin batetik lantzen ditugu gai horiek, modu desberdinean lantzeko eta Ikastolan ordu batzuk behintzat modu desberdinean pasatzeko.

Hauk dira Oiartzon eskaintzen ditugun aukerako gaiak:

1. mailan:

KulturazZientifikoa

IKT

Anatomia

Frantsesa I

2. mailan:

Lur eta ingurumen zientziak

IKT II

Psikologia

Adierazpen teknika grafiko-plastikoak

Frantsesa II

Administrazio eta kud. oinarriak

Ohiko galdera-sorta (FAQ):

Ikasle guztiek izan ohi dituzte nolabaiteko zalantzak batxilergoaren hasieran. Gehiago edo gutxiago, Oiartzotik pasa diren ikasle guztiek izan dituzte. Haiek izandako zalantzak eta galderak jaso eta erantzun ditugu orri hauetan. Seguru lagungarriak direla.

Egokia da batxilergoa goi-mailako lanbide heziketarako?

Bai, egokia da. Goi-mailako zikloak maila altuko ikasketak dira eta gure inguruan ikastetxe eta enpresa sare sendoa dugu. Aukera hau egiten duten gazteei lan-mundurako ateak zabaltzen dizkien sistema sendoa bat dugu lanbide heziketan.

Aipatutakoagatik, goi-mailako lanbide heziketa geroz eta eskari handiagoa duen ikasketa etapa da. Goi-mailako zikloetako plazen %60a batxilergoko ikasleentzat da. Erdi-mailako zikloak egin dituztentzat berriz %20a soilik. Beraz, batxilergotik goi-mailako ziklo batera sartzeko plazak hirukoiztu egiten dira.

Bide egokia da sarrera aukerak areagotzen dituelako, prestakuntza eta oinarri ona ematen duelako goi-mailako zikloetara begira, eta jarduera osagarriekin jarraitzeko aukera ematen duelako ere bai.

Zientziak edo letrak, zer aukeratuko dut?

Norberak erabaki behar du eta oso erabaki pertsonala da. Lehendabizi gure nahiei eta gustuei begiratu behar diegu. Non ikusten gara etorkizunean? Zer ikasi nahi dut? Zertan egin nahi dut lan? Non sentitzen naiz eroso? Zein dira gehien gustatzen zaizkidan gaiak?

Hitz egitea gomendatzen dugu: familiarekin, lagunekin, orientatzaileekin, irakasleekin. Besteen iritzi eta aholkuekin gure erabakia elikatzen saiatu behar gara. Galdera horiek erantzun ondoren ikuspuntu praktikoago batetik begiratu behar dugu. Etorkizunerako buruan ditudan ikasketetarako, zein batxilergo komeni zait? Zein da ibilbide egokiena? Kontuan izan behar da lanbide heziketako ziklo batzuetan eta unibertsitate gradu batzuetan zientzietako batxilergoa lehenesten dela. Informazio horrekin eta gure gustuen inguruko gogoeta eginda aukera desberdinak baloratu beharko ditugu.

Asko ikasi behar da batxilergoan?

Batxilergoan garrantzitsuena lan-ohiturak dira. Gaien erritmoa DBHn baino altuago da eta ebaluazio-garaian materia pilatzen da. Lanak eguneratuta izateko gaitasuna duten ikasleek abantaila handia dute. Eguneroko lana behar den bezala egiteak ebaluazio-garaian lan-karga murrizten du eta askoz ere eramangarriagoa da. Klaseak aprobetxatzea,

lanak eguneratuta edukitzea eta ebaluazioetan esfortzu bat egitea da batxilergoa ateratzeko errezeta. Hiru osagai horiekin, oso zaila da huts egitea.

Zein da Oiartzoko ordutegia?

Oiartzon 7:45ean hasten gara eta 14:30ean amaitzen dugu (ostiraletan, 14:25ean). Egunean 50 minutuko 7 saio izaten ditugu eta tartean bi atsedenaldi (ostiraletan, 6 saio). Arratsaldeak libre izaten dira egunero.

Nola egin ohi dira azterketak?

Ebaluazio bakoitzaren amaieran 4 azterketa-egun izaten ditugu. Azterketa egunetan ez dugu klaserik izaten. Ostegunean hasten gara eta asteartean bukatzen dugu (beti asteburua tartean). Lau egun horietan egunean 2 azterketa egiten dira. Guztira 7-8 azterketa egin ohi ditugu (aukeratutako gaien arabera). Ordutegia ere berezia izaten da: 7:45-12:30 izaten da, eta bigarren azterketa amaitutakoan etxera joateko baimena izaten dute ikasleek.

Kontrolak ere egiten ditugu. Gai bakoitzak bere ezaugarrien arabera antolatzen du kontrolen egutegia. Gai batzuetan gehiago egiten dira, beste batzuetan gutxiago. Baina aipatutako azterketa egun horietara lan karga gutxiagorekin iristeko balio dute, eta ebaluazio jarraia egiteko.

Berreskurapen-garaia azterketen bera izaten da, prozedurari dagokionez. Ebaluazioko berreskurapenak 2 egunetan egiten ditugu. Bi egun horietan guztira 4 azterketa egiten dira, jendetsuenak. Gainontzekoak irakaslearekin adostutako datetan egiten dira. Ordutegia ebaluazio-garaiko bera da. Dena gaindituta dutenek ez dute ikastolara etorri behar egun horietan. Ez da sari txarra bi egun jai izatea dena gainditzeagatik!

Badaude berreskurapenak?

Badaude, bai. Lehenengo eta bigarren ebaluazioek berreskurapenak dituzte. Hirugarren ebaluazioak, berriz, ez du berreskurapenik eta gainditu gabeko gaiak zuzenean ohiko deialdian egin behar dira. Ohiko deialdi honetan 1. eta 2. ebaluazioen berreskurapenetan gainditu gabeak eta 3. ebaluazioan gainditu ez direnak egiten dira. Azkenik ez-ohiko ebaluazioa dago, ohikoan utzitako gaiak gainditzeko.

Guztira, 1. eta 2. Ebaluazioetan, 4 aukera daude gainditzeko eta hirugarrenean, 3. Dena dela, ez pentsatu ohiko, ez-ohiko... gauzetan. Pentsatu dena gaindituz gero maiatzaren erdialdean oporretan izaten direla gure ikasleak.

Zenbat suspentsorekin errepikatzen da maila?

Lehenengo mailan 2 suspentso edo gutxiagorekin maila gainditzen da. Berdin du zein diren gaiak, muga 2 gai horietan dago. Hiru gai edo gehiago geratzen badira gainditu gabe, maila errepikatu behar da.

Bigarren mailan, berriz, gai guztiak gainditu behar dira ikasturtea gainditzeko: bai lehenengo mailakoak baita bigarren mailakoak ere. Gai bakar bat gainditu gabe izanez gero, errepikatu egin behar da. Baldintza batzuetan errepikatutako gai horiek bakarrik egin daitezke, beste guztien nota mantenduta.

Zientzietako batxilergoa eginda, ondoren burutu dezaket gizarte zientzietako ikasketaren bat?

Bai. Zientzietako gradu eta ziklo batzuetan batxilergo zientifikoa lehenesten da. Baina gizarte zientzietako ziklo eta graduetan ez da batxilergo-motarik lehenesten. Beraz, zientzietakoek gizarte zientzietako ikasketak egin ditzakete (ia beti) baldintza berdinetan.

Giza-gizarte zientzietako batxilergoa egin eta ondoren zientzietako ikasketaren bat burutu dezaket?

Unibertsitatean oso zaila da. Hasiera batean galdera honen erantzuna ezezkoa da. Zientzietako graduetan zientzietako batxilergoa lehenesten da. Hortaz, lehendabizi batxilergo zientifikokoak sartuko dira ikasketa horietara, eta ondoren gainontzeko batxilergoetakoak. Kontuan izanda ia gradu guztiak bete egiten direla, oso zaila da gizarte zientzietako batek zientzien familiako gradu bat egitea. Gainera, oinarri falta bat izango luke hau egin nahi duen ikasleak.

Lanbide heziketan printzipioa berdina da. Ziklo tekniko eta zientifiko batzuetan zientzietako batxilergoa lehenesten da, beraz lehendabizi batxilergo-mota horretakoak sartuko dira. Gizarte zientzietakoak sartu ahal dira, beti ere plazak geratu badira zientzietakoen ondoren. Lanbide heziketan erantzuna, ordea, ez da hain orokorra, ziklo-eskaintza ikaragarri handia baita eta banaka begiratu behar baita bakoitzaren egoera. Oiartzoko esperientziaren baitan, ohikoa da giza-gizarte zientzietako ikasleak batxilergo zientifiko lehenesten duten ikasketetan ikustea, baina zenbait ziklotan ia ezezkoa dela ere ikusi dugu.

Arte-ikasketak burutu ditzaket Oiartzon batxilergoa egin eta gero?

Bai. Ikasketa artistikoetan ez da batxilergo-mota bat lehenesten, beraz, berdin du zientzietako batxilergotik, giza-gizarte zientzietakotik edo artistikotik sartu. Egia da haztatze-parametroei dagokionean gai artistikoak egin dituztenek (batxilergo artistikoan) 14/14 puntuazioa lortu dezaketela, eta gainontzeko batxilergoetakoek 11/14 lortu ahal

dutela. Dena dela, kontuan izan behar da Bilbon artea ikasteko 6,5 puntuko nota eskatzen dutela (14tik), nahiko nota baxua. Oiartzon batxilergoko espedientearen batezbesteko nota (aipatu berri dugun notaren %60) 7,59 dela.

Modalitate bat aukeratu eta 1. maila egin ondoren konturatu naiz aldatu egin nahi dudala. Posible da modalitatez aldatzea?

Bai posible da. Modalitate aldaketa onartua dago batxilergoan, baina horrek ondorio batzuk dakartza. Modalitateen atalean azaldu bezala, maila bakoitzean modalitateko 3 gai egin behar dira (enborrekoa + 2). Hau da, guztira modalitateko 6 gai egin behar dira.

Beraz, modalitatez aldatzen den ikasleak, 2. mailan modalitate berriko gaiak egiteaz gain, aurreko ikasturtean egin beharreko 3 gaiak ere gainditu beharko ditu (modalitate berriari dagozkionak). Ondorioz, zientziak-letrak/letrak-zientziak aldaketa bat dagoenean ikasleak 1. mailako modalitateko 3 gai "pendiente" edo suspendituta eramango ditu ikasturte berrira, eta ikasturte bukaerarako modalitateko 6 gaiak gaindituta izan beharko ditu.

Legez egingarriak da, baina egoerak banaka aztertu behar dira. Ikasturtea zama handiarekin gainditzea esan nahi du (2. maila osoa + 1. mailako 3 modalitateko gaiak egin behar dira). Ikasle batzuen kasuan ez dugu aholkatzen horrelako erabaki bat hartzea eta askotan egokiagoa da modalitate berrian 1. maila errepikatzea edo alternatiba desberdinak aztertzea.

Zergatik ezin ditut aldi berean biologia eta marrazketa teknikoak ikasi?

Bi arrazoi nagusi daude hori egin ezin izateko. Batetik, ibilbideen arazoa. Hasiera batean interesgarria ematen badu ere ibilbide desberdinak zabalik mantentzeak, praktikan ezinezkoa da. Zientzietako modalitatearen barruan ibilbide posibleak ez dira asko (3) eta denetan fisika-kimika hartzea komeni da. Bigarren mailan hartzen du horrek zentzua, haztatze-parametroak ikusten hasten garenean. Parametro horiei erreparatuz gero, 3 bide posible bakarrik daude eta guztiek dute fisika edo kimika. Beraz, ezinbestekoa da 2. mailan gai hauetako bat hartzea. Ondorioz, nahitaezkoa da 1. Mailan ere fisika-kimika hartzea. Horrek aukera bakarra uzten du betetzeko, baina bi irakasgai posible: biologia-geologia eta marrazketa teknikoak. Bietatik bakarra egin daiteke.

Bigarren arrazoa antolaketaren ingurukoa da. Bigarren mailan (berez) unibertsitatera joan nahi ez duten horiek egin ahalko lukete biologia eta marrazketa teknikoak. Baina honek 1. mailan biak egitea esan nahi du. Praktikan ia ezinezkoa da. Horretaz gain, 3 ibilbide antolatzea nahikoa zaila da, eta Oiartzoko baliabide eta ikasle-kopuruarekin ezin dugu 4. Ibilbidea proposatu. Gainera, praktikan 2. mailara inor ez da iristen ibilbide hau hartzeko asmoarekin.

Latinetik GZ matematikara aldatu naiteke 1. maila bukatu ondoren?

Bai. Modalitate aldaketa bat da: giza zientzietako modalitatetik gizarte zientzietako modalitatera. Baina modalitateko gainontzeko gaiak berberak direnez (ekonomia, literatura, e.a.), aldaketak gai bakarrari eragiten dio.

Aldaketa hori egiteak 1. mailan egin den gaia baliogabetzen du (kasu honetan, latina), eta 2. mailan GZ matematika I eta GZ matematika II gainditu behar dira. Batean klasera joateko aukera izango du (2. mailako gaian), baina bestean, gaia gainditu gabe dutenen antzera, bere kasa pasa beharko du. Baliteke oinarri falta ere izatea 2. mailako matematikari ongi eusteko. Beraz, aldaketa hauek ongi planteatu eta hausnartu behar dira ikasle, guraso, orientatzaile eta klustroaren parte-hartzearekin.

Zer dira haztatze-parametroak?

Haztatze-parametroak Euskal Herriko Unibertsitateak bertako graduatarako sarrera barematzeko erabiltzen dituen parametroak dira. EHUko graduatarako sarrera puntuazioaren bitartez egiten da. Ikasle bakoitzak 14 puntu lortu ditzake, guztira. Batxilergoa eta USEren (Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa) derrigorrezko zatiarekin 10 puntura arte lortu daitezke. Haztatze-parametroekin 4 gehiago.

Parametro horien bitartez, gradu bakoitzak gai batzuei ematen die garrantzia eta "extra" puntuatzen ditu gai horiek. Horren ondorioz, badaude ikasle batzuk derrigorrezko gaiez gain beste batzuk ere egin behar dituztenak USEn, 4 puntu extra horiek lortzeko.

Arkitektura ikasi nahi duen ikasle baten kasuan, batxilergoko eta selektibitatearen nahitaezko zatiarekin 10 punturaino lortu ahalko ditu. Baina arkitekturako haztatze-parametroei begiratuta, ikusiko du Matematikan atera duen nota x 0,2 egingo zaiola. Hau da, matematikan 8 bat atera badu, bere batezbestekora 1,6 puntu gehituko dizkio zuzenean (10arte atera duena + 1,6). Fisikan eta marrazketa teknikoan, bakoitzeko nota x 0,1 egingo zaio. Bi gai hauen azterketa egitea erabakitzen badu, 14 puntura arte lortu ahalko ditu arkitekturara sartzeko.

Bada sarrera notarik goi-mailako lanbide heziketan?

Bai. Lanbide heziketako zikloetan eskura dauden plazak baino eskaera gehiago badaude, notaren arabera erabakiko da zein sartzen den. Batxilergokoentzako da plazen %60a, eta plaza horiek nota onena dutenen artean banatuko dira.

Sarrera-notaz gain, lanbide heziketan batxilergo-motari ere erreparatzen zaio, unibertsitatean bezala. Zientzietako ziklo batzuetan lehentasuna dute zientzietako batxilergoa egin duten ikasleek. Lehendabizi horiek sartuko dira, eta ondoren beste guztiak. Beraz, oso argi eduki behar da egitura: plazak betetzear badaude ziklo batean,

plaza horien %60 batxilergokoentzat izango da. Ehuneko hori banatzean, lehenetsitako batxilergoek izango dute lehentasuna, eta momenturen batean nortzuk sartzen diren erabakitzeke, hala beharko balitz, nota erabiliko da.

Zergatik esaten dute GZ matematika egokiagoa dela latina baino magisteritzarako?

Haztatze-parametroen ondorioz esaten da hori. Magisteritzatako haztatze-parametroetan matematikak eta gizarte zientzietako matematikak 0,2 puntuatzen dute. Gai hauek selektibitateko derrigorrezko fasean egiten direnez, horiek selektibitatean gainditu dituzten guztiek gutxienez puntu extra bat lortuko dute ikasketa horietara sartzeko. Latinari berriz ez diote punturik eman haztatze-parametroetan. Horren ondorioz, matematikak egin dituztenek puntu extrak lortu ahal dituzte; eta latina egin dutenek, ez.

Magisteritzako nota 8,2 eta 8,6 puntutan (14tik) itxi zen 2019an, Gipuzkoan. Latina egin duen batek magisteritza ikasi dezake berdin-berdin, baina nota hori lortzeko ez ditu eskura izango matematika ikasi dutenek dituzten puntu extra horiek. Latina ikasi, USE egin eta extra puntuatzen duten gainontzeko gaiekin 8,2-8,6 bueltara iristen denak magisteritza ikasi dezake.

Kirol eta jarduera fisikoen gradua ikasteko, zein batxilergo-mota da egokiagoa?

Kirol eta jarduera fisikoen gradua ikasteko ez da batxilergo motarik lehenesten. Beraz, batxilergo-mota guztietako ikasleak baldintza beretan sartzen dira. Horrez gain, 14 puntu lortzeko haztatze-parametroen arabera, Oiartzoko 3 batxilergo-motetan egindako gaiekin lortu daitezke 14 puntu horiek. Aukera guztiak dira onak.

Zergatik da garrantzitsua 1. deialdian dena gainditua izatea 2. mailan?

Bigarren batxilergoan, batez ere unibertsitatera doazen horientzat, garrantzia handia du dena 1. deialdian (edo ohiko deialdian) gainditzeak. Unibertsitatean sarrerako nota duten gradu ia denak USE 1. deialdian (ekainean) egin dutenekin betetzen dira. Beraz, USE uztailan egin dutenak kanpoan geratu ohi dira. Gauzak horrela, eskari handia duen gradu batera sartu nahi duten horiek 1. deialdian (maiatzean) amaitu behar dute batxilergoa, ekainean USE egin ahal izateko.

Frantsesa aukeratu dezaket frantsesa sekula egin gabe?

Bai, noski. Lehenengo batxilergoko frantsesa interesa duen edonorentzat dago zabalik. Urtero izaten ditugu ikasle batzuk 4 urte frantsesa eginda etortzen direnak eta beste batzuk lehen urtea dutenak. Biak uztartzen saiatzen gara, elkarri lagunduz eta elkarrekin ikasiz helburuak lortzeko.